

"LIBURUTEGIA ETXEAN" ETXEZ ETXKO MAILEGU-ZERBITZUA ERABILTZEKO ARAUAK

1.- Zerbitzu honen erabiltzaile izateko, Santurtzi udalerrian erroldatuta egon behar da eta honako baldintzak bete behar dira:

- 70 urtetik gorakoa izan
- "A", "B", 7 edo goragoko minusbaliotasuna izan, mugikortasun-baremoaren arabera, minusbaliotasunaren ziurtagiriaren bidez egiaztatua

2.- "Liburutegia etxean" izeneko etxez etxeko mailegu-zerbitzuaren onuradun izateko, Santurtziko Udal Liburutegien Sarearen irakurle-txartela eduki behar da.

3.- Irakurle-txartela pertsonala da eta ezingo zaio beste inori utzi.

4.- Txartela galdu edo hondatuz gero, txartelaren titularrak horren berri eman beharko du, dela telefonoaren bidez, dela helbide elektronikoaren bidez edo maileguan hartutako materialak etxera eramango dizkion langileari jakinaraziko dio, txartela bikoizteko izapideak hasteko.

5.- Erabiltzaile bakoitzeko 5 liburu hartu ahalko dira maileguz, gehienez ere.

6.- Liburuak mailegatzeko eta itzultzeko eskabideak astelehenetik ostiralera bitartean egingo dira, jaiegunetan izan ezik, bai eta etxean bertan emateko eta batzeko eskabideak ere.

7.- Erabiltzaileak materiala irakurtzen lehenago amaitu badu, telefonoz edo posta elektronikoz emango du horren berri.

8.- Materialak itzultzean berandutuz gero, erabiltzaileari etxez etxeko mailegu-zerbitzua ukatu egingo zaio: maileguz hartutako dokumentu bakoitza itzultzeko zenbat eguneko atzerapena, hainbat eguneko ukapena.

9.- Erabiltzaileak, izena ematean, etxean liburuak eman eta jasotzeko ordutegia erabaki beharko du; horrela, bada, zerbitzua emateko erabakitako egunean etxean bertan egoteko konpromisoa hartuko du.

10.- Materiala maileguz hartzen duen erabiltzaileak osotasunean eta egoera onean mantentzeko konpromisoa hartuko du. Galdu edo larriki hondatuz gero, leheneratzeko beharra izango du. Santurtziko Udal Liburutegien Sareko langileek edo materiala banatzeko langileek leheneratzeko egin beharreko prozeduraren berri emango diote erabiltzaileari.

11.- Etxez etxeko mailegu-zerbitzuaren erabiltzaileek edo berekin bizi direnek datu pertsonaletan egindako edonolako aldaketaren berri eman beharko dute, telefonoz edo posta elektronikoz.

12.- Etxez etxeko mailegu-zerbitzua erabiltzen duen erabiltzaileak zerbitzua bera arautzen duen araudia onartzen duela ulertuko da. Araudia bete ezean edo zerbitzua behar bezala erabili ezean, zerbitzua eten dakioke erabiltzaileari.

ZER DA "LIBURUTEGIA ETXEAN"?

"Liburutegia etxean" proiektua Santurtziko Udal Liburutegien Sarearen ekimena da eta helburu du biztanleen artean irakurtzeko ohitura sortu eta sustatzea; horretarako, liburuak herritarren eskura jarri eta talde guztie-guztiek informazioa eta ezagutza berenganatzeko tresna eraginkor izan dadila lortu nahi da.

Proiektu honek liburuak geureganatzeko adinak edo minusbaliotasunak eragiten dituzten oztupoak gainditu nahi ditu.

NORENTZAT DA "LIBURUTEGIA ETXEAN"?

"Liburutegia etxean" zerbitzua herritarren arteko bi talde jakinentzat da:

70 urtetik gorako adinekoak

Santurtzi udalerrian errolatuta dauden 70 urtetik gorako adinekoak.

Minusbaliotasunen bat duten pertsonak

"A", "B", 7 edo goragoko minusbaliotasuna dutenak, mugikortasun-baremoaren arabera, minusbaliotasunaren ziurtagiriaren bidez egiaztatua eta Santurtzi udalerrian errolatuta daudenak.

NOLA FUNTZIONATZEN DU ZERBITZUAK?

"Liburutegia etxean" proiektuaren helburu nagusia da 70 urtetik gorako adinekoei edo minusbaliotasun bat dutenei liburutegietara jotzeko laguntza ematea eta, horretarako, liburuak etxera eraman eta jasotzea.

Nola lor dezaket "Liburutegia etxean" zerbitzua?

Zerbitzu hori jaso ahal izateko, interesdunek Santurtziko Udal Liburutegien Sarearen bazkide izan behar dute. Beraz, izen-ematea eskatu beharko da eta inprimaki egokia bete beharko da, bai eta beharrezko agiriak aurkeztu ere: titularraren NANaren fotokopia eta, 14 urtetik beherakoa izanez gero, adingabearen arduradunaren NANaren fotokopia, baita minusbaliotasunaren ziurtagiria ere, mugikortasun-baremoaren arabera.

Non lortuko dut bazkide izateko izena emateko eskabidea?

Bete beharreko inprimakia Sareko edozein liburutegitan eta www.santurtzi.net/ocio.asp?ocioid=2 web orrialdean dago eskuragarri, eta telefonoz ere eska daiteke.

Bazkide izateko izena emateko eskabidearen inprimakia egoki bete ondoren, edozein liburutegitan entregatuko da, harremanetan jartzeko aurretik aipatutako bideen artean aukeratutakoa edozein dela; horrekin batera, kasu bakoitzerako eskatutako egiaztagiria aurkeztuko dira. Datuak zuzenak direla egiaztatu ondoren, interesdunari eskabidea onartu dela jakinaraziko zaio.

Eta, dagoeneko, Santurtziko Udal Liburutegien Sarearen bazkide izanez gero?

Kasu horretan, aurretik zehaztutako prozedura bera egingo da, betiere txartel bera izanik, baldin eta eskatzaileak baduela egiaztatzen badu.

Zein dira maileguz hartzeko baldintzak?

- etxez etxeko mailegurako materialak liburuak dira
- liburuak etxean eskatu, eraman eta jasotzeko egunak astelehenetik ostiralera bitartekoak izango dira, jaiegunak izan ezik.
- etxean, gehienez ere, 5 liburu izan ahalko dira.

Nola egingo da maileguz hartzeko eskaera?

Liburuak maileguz hartzeko eskaerak telefonoz zein posta elektronikoz egin ahalko dira.

Noiz jasoko da/dira eskatutako liburua/ak?

Liburuak etxera eramateko epea 48 ordukoa izango da, eskabidea jaso denetik aurrera zenbatzen hasita, honako kasuetan salbu:

eskaera ostiral arratsaldean egitea; kasu honetan epea 72 ordukoa izango da gordailuko liburuak eskatzea; kasu honetan epea, gehienez, 7 egunekoa izango da

eskatutako liburua beste irakurle batzuentzat gordeta izatea; kasu horretan itxaronzerrendan jarriko da eskatzailea eta 48 ordutan emango zaio, liburua itzultzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskatzaileak aukeratuko du bazkidearen eskabide-inprimakian liburua eramateko ordua.

Liburua eramateko orduan, mezulari batek eskatutako liburuak eramango ditu, bai eta mailegu-agiria ere; agiri hori momentuan bertan sinatu eta mezulariari eman beharko zaio.

Zenbat denboraz izan daiteke liburua etxean?

Maileguz hartzeko epea:

narratiba-liburuak, poesia, antzerkia eta biografia: 28 egun, berriro hartzeko aukerarekin, epe berean; betiere, liburua ezingo da erreserbatuta egon. Kasu horretan, berriro hartzeko aukera beste astebetekoa izango da.

kontsulta-liburuak: 14 egun, berriro hartzeko aukerarekin, epe berean; betiere, liburua ezingo da erreserbatuta egon. Kasu horretan, berriro hartzeko aukera beste astebetekoa izango da.

Maileguz berriro hartzeko eskaera 48 ordu lehenago egin beharko da.

Eta maileguz hartutako materiala itzultzeko?

Epea bete aurretiko 24 orduetan, erabiltzaileari batzeko eguna eta ordua jakinaraziko zaizkio, eta mezulari bat erabiltzailearen bizilekura joango da liburuak batzera. Bazkideak liburuak itzuli direla adierazten duen agiria sinatu beharko du eta, egun batzuen buruan, itzultze-agiria helduko zaio posta arruntez; agiri hori 30 egunez gorde beharko du, itzuli duela justifikatzeko.

Eta irakurtzen epea bete aurretik amaitzen badut?

Adierazitako lotura-bideen bidez jakinarazi ahalko da eta maileguz hartutako liburuak 48 orduko epean batuko dira.

Zalantzarik izanez gero, Santurtziko Udal Liburutegien Sarearen edozein liburutegirekin jar zaitezke harremanetan edo udalaren web orrialdea kontsulta dezakezu: www.santurtzi.net/ocio.asp?ocioid=2

